



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

Gradu Amaierako Lana

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2013/2014 ikasturtea

IKT-EN ERABILPENA LANDA ESKOLAN ETA HONEN KALITATEA IKERTZEN

Egilea: Janire Rekalde Villa

Zuzendaria: Arantzazu López de la Serna

Leioan, 2011ko ekainaren 11an

AURKIBIDEA

Sarrera.....	3
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala.....	5
1.1. Landa eskolaren eta eskola unitarioaren definizioa eta ezaugarriak.....	5
1.2. Landa eskolaren aurrekariak eta egungo egoera.....	7
1.3. IKT-en erabilera Nafarroako landa eskolan	9
2. Metodologia.....	12
2.1. Helburuak	12
2.2. Lanerako hipotesiak.....	12
2.3. Lagina	14
2.4. Datuak biltzeko eta aztertzeko teknikak	14
3. Lanaren garapena	15
4. Lortutako informazioaren analisia.....	16
4.1. Emaidzak	17
4.2. Ondorioak	21
5. Erreferentzia bibliografikoak	26

ERANSKINAK

1. eranskina: Eskolako erreminta pedagogiko berriak.....	28
2. eranskina: Landa eskolako irakasleei egindako inkestak.....	32
3. eranskina: Landa eskolako irakasleei egindako galdetegiak.....	34

IKT-EN ERABILPENA LANDA ESKOLAN ETA HONEN KALITATEA IKERTZEN

Janire Rekalde Villa

EHU/UPV

XX. mendearen amaierako "Teknologia berrien" agerpena da "Iraultza Digitala" deritzonaren jatorria. Hezkuntza sistema ez da honetatik kanpo egon, geletan erantsi dituelarik, landa eskoletan aipagarri suertatzen den modura. IKTek elementu berriak txertatu dituzte hezkuntzan, transformazio sakon bat eraginez, bai ikuspuntu teknologikotik, eta baita pedagogikotik ere. Nafarroako herri txiki ezberdinetako testuinguari erreferentzia eginez, landa eskoletan egiten den IKTen erabileran oinarritzen da ikerketa hau. Ikasleek teknologia berriak modu eraginkor eta esanguratsuan erabiltzen dituzte, auto-ikaskuntza bultzatuz; modu honetan, IKTak baliabide praktiko, erabilgarri eta baliogarriak bihurtzen dira irakaslearentzat. Horrela, IKTek eskola hauetako ikas-irakas prozesua errazten dutela eta, gainera, honen kalitatea hobetzen dutela egiaztatzen da.

Landa eskola, IKT, berrikuntza, gaitasun teknologiko-digitala, auto-ikaskuntza

La aparición de las "Nuevas Tecnologías" a finales del siglo XX es la causa de la llamada "Revolución Digital". El sistema educativo no ha estado ajeno a esto, incorporándolas a sus aulas, destacando su uso en las llamadas escuelas rurales. Las TIC han introducido en la educación nuevos elementos que realizan una transformación profunda tanto desde un punto de vista tecnológico como pedagógico. Tomando como referencia el contexto de los diferentes pueblos pequeños de Navarra, esta investigación se centra en el uso de las TIC en las escuelas rurales. Los alumnos/as hacen uso de las nuevas tecnologías de forma eficiente y significativa, incitando el auto-aprendizaje; de esta manera las TIC se convierten en recursos prácticos, manejables y valiosos para los docentes. Así, se confirma que las TIC facilitan el proceso de aprendizaje-enseñanza en estas escuelas y que, además mejoran su calidad.

Escuela rural, TIC, innovación, competencia tecnológico-digital, auto-aprendizaje

The emergence of the "New Technologies" in the late twentieth century has been the cause of the "Digital Revolution". The education system has not been immune to this, incorporating them into their classrooms, emphasizing its use in so-called rural schools. ICT in education have introduced new elements that made a deep transformation both technologically and pedagogically. Taking the context of different small towns of Navarra, this research focuses on the use of ICT in rural schools. Students / as make use of new technologies efficiently and significantly, encouraging self-learning; ICT thus become practical, manageable and valuable resource for teachers. This confirms that ICTs facilitate the teaching-learning process at these schools and also improve its quality.

Rural School, ICT, innovation, technology-digital competence, self-learning

Sarrera

Teknologia berrien agerpenak XX. mendearen azken hamarkadetan, aurrerapauso handiak eman ditu gizarteko eremu guztietan iraultza digitala sortuz. Gaur egun Informazioa, Komunikazioa eta Teknologia (IKT-ak) deitzera pasatu dira, eta gizarteko esparru guztietan aldaketa garrantzitsuak eman ditu. Aldaketa garrantzitsuenetariko bat hezkuntza arloan eman da. Honek suposatu du hezkuntza sistemak iraultza honi erantzuna ematea eskoletan dispositibo berriak ezarriz, ikasleen hezkuntza finkatu eta hobetu dadin.

Poliki poliki gizartea aurrera joan ahala, hezkuntza sisteman ere aurrerapen hori nabaria izan da. Hau da “(...) pasar de la “Sociedad de la Información” a una “Sociedad del Conocimiento”, esto es transformar la “información” según Mercé Gisbert, datos secuenciados y ordenados en conocimiento para el uso crítico, racional y reflexivo de la información global, distribuida por los diferentes medios”. (Aznar, 2005:180). Hori dela eta Castañok (2013) aipatzen duen moduan IKT gero eta presenteago daude gelako dinamika desberdinetan eta adin guztietako mailetan. Beraz, esan genezake XXI. mendean eskaintzen den hezkuntza sistema ezinezkoa izango litzatekeela IKT-etatik aldentuta izanik. Cebrianek (2003) azpimarratzen du IKT-en erabilerak aukera anitzak ematen dituela, hala nola, informazioa eskuratzeko iturri desberdinak, hura pilotzeko, komunikatzeko edo pertsonen arteko interakzioa sortzeko.

Horrez gain, azken urteotan IKT-en erabilera asko handitu da hezkuntza sisteman eta hori nabarmena da ere landa eskoletan, besteak beste aipa ditzakegu: arbela digitala, unitate interaktiboak, internet, blogak ... Berritasun hauek eragin positibo zuzena izan dute eskolan, funtsezko baliabideak bihurtu baitira egunerokotasun jarduerak gauzatu daitezkeen. Aldaketa hauek, eskolako kide guztien izaeran eragina izan dute, baina bereziki ikasleengan “el alumno participa, se implica y muestra afinidad en especial en aquellos casos en los que se emplean tecnologías consuetudinarias a su día a día y con docentes comprometidos” (López de la Serna, 2014).

Lan hau landa eremuko testuinguruan oinarrituta dago hezkuntza sistema honek suposatzen duen antolakuntza baloratuz. Orokorrean, gizartearen barruan eskola kontzeptuaren ideia oso globalizatuta dago, eraiki handi bat, irakasle asko, ikasle asko,

aniztasun handia... Eskola unitarioa edo landa eskolaren errealitatea desberdina da hainbat aspektuetan. Landa eskolak definitzeko ezaugarri jakin batzuk baditu ere, ikasleen antolatzeko era, hau da, adin desberdinetako ikasleak gela batean egotea izan daiteke ezaugarri nabariena. Hala ere, bere osotasunean hainbat desberdintasun aurki ditzakegu eskola tradizionalarekin alderatuta.

Laburbilduz, lan honek bi alderdi nagusi uztartzen ditu. Alde batetik, landa eskolan IKT-en eragin positiboa eta erabilgarritasuna baloratuko da eskola hauen ezaugarriak kontuan hartuz, eta bestetik, irakas-ikas prozesuan teknologia berriaren erabilpena eta erabilgarritasuna ikertuko dira. Ikerketa hau Nafarroako Komunitate Foraleko landa-eremuko eskoletan eraman da aurrera, kopuru eta historiagatik lagin esanguratsuena suertatzen baita.

1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala

1.1. Landa eskola eta eskola unitarioaren definizioa eta ezaugarriak

Eskola txikiak, landa eremuko eskolak, eskola unitarioak, herri txikietako eskolak... oraindik ez dakigu zein den eredu hau hobeto definitzen duen izena. "Euskal Herriko hiru administrazioek kategorizazio desberdinak erabiltzen dituzte eskolak sailkatzerako orduan" (Ballanera, 2008:20). "Nafarroa Garaiko Hezkuntza Departamentuak osagabeko eskolak eta landa-eremuko eskolak direla adierazten du, Gasteizen (...) ikastetxetarako eskola txikiak izena erabiltzen da, eta Euskal Herri kontinentalean kokatzen diren ikastetxeak "ecolerural" deitzen dira". (Ballanera, 2008:20). Hala ere, izen desberdinak izan arren, eskola hauen ezaugarriak, kezkak, interesak eta beharrak parekoak dira. Eskola publikoak direnez, hezkuntza-administrazio publiko baten menpe daude eta honek hartzen ditu bere baitan hainbat betebeharrak: irakasleen formazioa, materialen horniduna eta curriculumaren inguruko aferak besteak beste. Konkreterik Nafarroako eskola huen ezaugarriak errepikatzen badiegu, kontuan hartu beharreko aldagaiak hurrengoak dira; (Euskal Herriko herri eskolak artikuluan zabalago azaltzen den moduan).

- Nafarroako landa eskola guztiak bi izan ezik, D ereduak dira, (Vascuenceren Legeak ez duelako begiztatzen eskualde erdaldunetan D ereduaz ezartzea)
- Eskola guztiek Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza dituzte. Lau eskolek DBH ere bai.
- Eskolak 12 zonaldez sailkatuta daude. Zonalde bakoitzean koordinatzaile bat dago eta Hezkuntza departamentuan landa eremuko eskolei laguntzeko bulego bat dago.

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako Eskola aipatutako parametro honen barruan sartzeko hiru baldintza nagusi bete behar ditu: ikasleen kopurua neurri txikikoa izatea, horretarako, 2006/2007 ikasturtean Hezkuntza Departamentuak sinatutako Hezkuntza Hobekuntzarako Ituna izenekoan agertzen ziren eskola hauek kudeatzeko ratioak: Haur hezkuntzan 15 ikasle eta hiru adinak hartzen badira 14rainorako ratio dugu; Lehen Hezkuntzan ziklo bateko ikasleen kopurua 15ekoa da, eta hiru adin baino gehiago izanez gero 14ko kopurua da. Hala ere, ez dira kontuan hartzen talde bakarreko eskolak (unitarioak edo osagabeak), hau da, adin desberdinetako

ikastaldeak dituztenak. Eskola hauen ratioak desberdinak dira, eta gutxienez 5 ikasle egon behar dira. Eta bestalde, herrikoia izatea eta publikotasuna. Laburbilduz, esan genezake, landa eremuan dagoen eskola eta adin desberdinetako ikasleak biltzen dituen delanda eskola. Gaur egungo landa-eremuko eskolaren errealitatea datuek ematen digute: Nafarroan 79 eskola daude eta hauetatik 14 unitarioak/osagabeak dira, Gipuzkoan 26 eskola daude eta hauetatik 2 unitarioak dira, eta Bizkaian 28.

Eskola hauen antolakuntza desberdina da eskola eredu tradizionalarekin konparatuz gero, adin desberdinetako ikasleak batera baitaude. Horrek irakasleen plangintza asko baldintzatzen du eta lantzen diren edukiak ikasle guztientzat berdinak badira ere, adinaren arabera moldaketak egiten dira. Ikasleek autonomia maila altuagoa lortzen dute, etengabe interakzioan daudelako beste ikasleekin. Plangintza oso zehaztuta dago eta ikasle bakoitzaren eguneroko eginbeharrak zeintzuk diren baita ere. Orokorrean landa eremuko ikasleria lasaia eta harkorra izan ohi da. Bizitza osasuntsukoa eta konfiantza izatea ikaslearen izaera eta jokabidea osatzeko baliogarria da. Testuinguru erreal honetan ematen den irakaskuntza-ikaskuntza prozesua oso pertsonalizatua da, irakasle eta ikaslearen artean modu zuzenean ematen delako. Talde txikia izateak asko laguntzen dio gelako aniztasunari erantzuna eman ahal izateko. Izan ere, testuingurua lasaia eta bizigarria da, non ikasleak mugitzeko askatasun handiagoa duen, beti ere, hiriko testuinguruarekin alderatuta.

Familiari dagokionez, kopurua baxua bada ere, eskolarekin sortzen diren harremanak oso estuak eta hurbilak dira. Familiak parte hartzen dute ikas komunitatean eta horrek aberastasun handia ematen dio eskolari, haiekin elkartzeak asko laguntzen dielarik horretan. Familiak jarrera oso baikorra dute eta herri eskoletakoa kalitatezko hezkuntza delanda azpimarratzen eta defendatzen dute. Hori indartzeko asmoz Gipuzkoako Eskola Txikietako Guraso Elkarten Koordinazioa, Centros Rurales Agrupados (CRA) eta Centros Rurales de Innovación Educativa (CRIE) erakundeak sortu dira.

(...)los maestros debemos gastar energía y creatividad en buscar la manera de incluir a las familias (...) esta inclusión de las familias exige un trabajo en dos sentidos: buscar la manera que a las familias les llegue información del mundo que tiene la

vida del aula y buscar en el aula la manera de hacer un lugar a la voces de las familias.
(Gallego, 2008:31)

Aipatutako erakundeek helburu komun hauek dituzte:

- Eskola publiko euskalduna herrietan mantentzea.
- Herriaren nortasunean eta kulturaren oinarritutako heziketa bultzatzea.
- Herri txikiak eskolen beharrak azaldu eta eskakizunak bideratzea.
- Herri txikien arteko harremanak bultzatzea, eskolaz kanpoko jarduerak oinarri hartuta. (Aguirre, 2008:27)

1.2. Landa eskolaren aurrekariak eta egungo egoera

Egungo gizartean hezkuntza ereduaren inguruan dagoen ikuskera, prozesu historiko, kultural, sozial eta politiko luzeen emaitza da. Testuinguru, garai eta gizarte desberdinen arabera hezkuntza sistemak bere aldaketak izan ditu eta landa eskolak izan duen ibilbidea ere aldakorra izan da. 70.urteetan adin desberdinetako ikasle asko zeuden batera gela batean. Irakasleak denbora luzez zuen eskolaren ardura nagusia, nahiz eta eremu horretarako formakuntza berezirik ez jaso. Eskola hauek 80.urteetan eraldatze prozesu bat hasi zuten: Ikasleen kopuruak behera egin zuen, biztanleria landa eremutik hirira joaten hasi zen eta. Horrek eskola hauen transformazioa suposatu zuen, ikasle gero eta gutxiago zeudelako. Egoera horrelakoa izanik, eskolak izen ona galtzen hasi ziren, batez ere ikasle kopuruaren jaitsieragatik eta irakasleen ezegonkortasunagatik. Urte batzuk beranduago, landa eskolak estatus baxuena lortu zuen gizartean. Landa eremuko kultura eta irakaslearen prestigioa galtzeak kokatu zuen eskola unitarioa gizarte hobetzienetatik kanpo. Gurasoen aldetik kalitatezko hezkuntza ote zenaren zalantza asko hedatu zen, "(...) en los años 90 (...) se pierde el papel culturalmente de la maestra y la escuela, y el desprestigio de las pequeñas escuelas donde los padres creen que sus hijos recibirán una peor educación" (Jimenez, 2009:2) honek eskola unitarioaren gainbehera ekarri zuen.

Orain arte eskola unitarioa bermatu duen lege bakarra "Ley General de Educación 1970" izan da.

"Se produce una reacción a favor de la escuela rural que tiene su primera repercusión legislativa en el Real Decreto de 13 de abril de 1983, regulador de la Educación Compensatoria del Ministerio de Educación y Ciencia para corregir y compensar positivamente situaciones de desigualdad educativa de determinados

sectores, incluye a las escuelas ubicadas en áreas rurales desfavorecidas” (BOE» núm. 106, de 4 de mayo de 2006).

Hala ere, LOGSEK beste eredu bat proposatu zuen eta talde lanari, pedagogia aktiboari, balioei eta aniztasunari garrantzia eman zien. Lege honek nabarmendu zuen eskola hauen jarraipena. Lehenago aurrerapauso batzuk eman ziren arren “conseguir un modelo de organización para la escuela rural que, sin desarraigar al alumnado de su entorno, fuese considerado de calidad y equiparable a los centros urbanos en cuanto a su prestigio pedagógico.” (Martín, 2004), LOE (LEY ORGÁNICA 2/2006, de 3 de mayo, de EDUCACIÓNrekin) landa eremuko aukera berdintasuna bermatu zen:

1. Las Administraciones educativas tendrán en cuenta el carácter particular de la escuela rural a fin de proporcionar los medios y sistemas organizativos necesarios para atender a sus necesidades específicas y garantizar la igualdad de oportunidades.
2. Sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado 3 del artículo anterior, en la educación básica, en aquellas zonas rurales en que se considere aconsejable, se podrá escolarizar a los niños en un municipio próximo al de su residencia para garantizar la calidad de la enseñanza. En este supuesto las Administraciones educativas prestarán de forma gratuita los servicios escolares de transporte y, en su caso, comedor e internado (BOE» núm. 106, de 4 de mayo de 2006)

Gure gizartean azken urteetan eman diren aldaketa sozialak eta ekonomikoak direla eta, landa eskolaren presentzia eta garrantziak gora egin du. Egungo biztanleriaren kopuru batek landa eremura bueltatzeko aukera baloratu du. Horregatik, eskola hauetan aurrerapen handiak ematen ari dira, eskaintzen dituen aukerak ikaslearentzat paregabeak direlako: irakaskuntza pertsonalizatuagoa, IKT-en erabilera, familiaren parte hartzea, herrian gelditzearen printzipio mantentzea... Eskola hauek gero eta arrakasta handiagoa lortzen ari dira gizartean, “(...) en la mayoría de ellas se alcanza, una alta calidad de enseñanza. “Es una escuela pluralista, que potencia el desarrollo de las capacidades de los alumnos, (...) favorece la innovación y establece interrelaciones constantes con su entorno más cercano” (Bernal, 2009:12).

1.3. IKT-en erabilera Nafarroako landa eskolan


Informazioaren gizartetik ezagutzaren gizartera igarotzeak suposatzen du bizitzan zeharreko formakuntza, hezkuntza eta ikasketa ziurtatuko eta erraztuko dituen estrategia politiko eta ekonomikoak ezartzea. Gizartearen bilakaera egokia bermatzeko gomendio batzuk hartu behar dira kontuan: ezagutzen eskuratzea estimulatzea, hezkuntzako sare egokia izatea, prestakuntzarako finantziarioa egokia izatea, ikaskuntzarako metodo berrien hobekuntza eta hedapena sustatzea besteak beste. Teknologia berriek ezaugarri hauek betetzen badituzte, hezkuntza sistemara modu eraginkor eta praktikoa helduko dira. Gaur egun, hezkuntzaren kalitatearen atal garrantzitsu bat teknologia berriaren menpe dago. “Seymour Papert o David Cavallo, consideran que las TIC son no sólo una oportunidad sino también la excusa perfecta para introducir en la educación nuevos elementos que realicen una transformación profunda de la práctica educativa”. (Martín-Laborda, 2005:4). Soler Matak defendatzen duen moduan landa-eskoletan IKT-ak erabiltzeak ikasketa prozesua errazten duela:

“El aislamiento del medio rural es un tópico del siglo XX, pero no tendrá sentido en el siglo XXI. La escuela rural debe explotar todas las potencialidades de las tecnologías de la información y la comunicación. Ello exige investigar y buscar nuevas formas y posibilidades de trabajo en ámbitos distintos. La comunicación y la navegación por la “red” debe aportar soluciones y propuestas en el ámbito de la enseñanza-aprendizaje (nuevos entornos de aprendizaje), pero también en el ámbito de la gestión, el intercambio de información, la formación y la interrelación de la escuela con el exterior”. (Soler, 2001,87-88)

Horretarako, Nafarroako Hezkuntza Curriculumean oinarritzko gaitasunen atalean teknologia berrien erabilpenari erreferentzia egiten da. Informazioaren tratamendua eta gaitasun digitalak bilatu, lortu, prozesatu, informazioa komunikatu eta jakintza bihurtzeko trebetasunean datza teknika eta estrategia desberdinak aplikatuz. Baina kontuan hartu behar dugu informazioa izateak ez duela automatikoki jakintza sortzen, horretarako beharrezkoa da hura antolatu, erlazionatu eta ditugun ezagupen-eskemen barruan sartzeko trebetasuna. Gaitasun digitalak barne hartzen du informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzean etekinik handiena lortzea, aurretik finkatutako xedek lortzera bideratzeko. Laburbilduz, gaitasun honen helburua “pertsonek kritikoa, eraginkorra, arduratsua eta gogotsu izatea (...) eskura dagoen informazioa baloratzeko jarrera kritikoa eta gogoetazko izatea (...) eta

euskarri desberdinetan erabiltzeko gizartean jokabide arauak errespetatzea” da. (Nafarroako Gobernu, Hezkuntza Departamentua: 2007:28-29).

Landa eskolan ikasle gutxi direnez, maila desberdinetako ikasleak elkarrekin daude eta honek beste era bateko planteamendu pedagogiko bat eskaintzen du. “La educación flexible (...) y con la implantación de un programa educativo virtual (...) puede suponer una concepción que proporciona al alumno una variedad de medios y la posibilidad de tomar decisiones sobre el aprendizaje” (Salinas, 2005:3). Eremu birtualetan ikas-irakaskuntza prozesuan ematen den beste ezaugarri garrantzitsu bat interakzioa da, hau da, ikasle-irakasle, ikasle-ikasle eta ikasle-edukien artekoa. Ikas-irakas prozesua esanguratsua izan dadin parte hartzen duten kide guztien balorazioak, esperientziak eta iritziak kontuan hartu beharrekoak dira. Gaur egun, teknologia berriek bai ikasleei, bai irakasleei etengabe harremanetan egoteko aukera ematen diete, interakzioan baitaude. Honek, suposatzen du, edozein momentutan eta edozein tokitan posiblea dela informazioa trukatzea, zalantzak argitzea edo kontsultak burutzea. Interakzio honi esker, ikasleak ikasketengatiko hurbilketa pertsonala egiteko apeta sortzen da, ikasketa prozesuaren ardura bere gain hartzen duelarik.



1.irudia: Interakzioa eremu birtualetan (de Benito, 2008:117).

Planteamendu honetan ikaslea ikasketen zentroa denez irakaslearen papera ere aldatu egiten da:

(...) el rol del profesor cambia de la transmisión del conocimiento a los alumnos a ser facilitadores en la construcción del propio conocimiento por parte de estos. Se trata de una visión de la enseñanza en la que el alumno es el centro o foco de atención y en el que el profesor juega, paradójicamente un papel decisivo. (...). Promueve en el alumno el crecimiento personal y enfatiza la facilitación del aprendizaje antes que la transmisión de información. (Salinas, 2005)

Proiektu teknologikoa, hedabideek izan duten zabalkundea eta eskaintzen duten komunikazio erraztasunaren ondorioz, IKTek bide berri bat zabaldu dute eredu pedagogiko eta curricularrak ikasketa prozesuetan parte har dezaten. Horrela, sistemearen berrikuntzaren bitartez ikas-irakas prozesu berriak eta antolamendu berriak agertu dira. “Se considera la organización de procesos de enseñanza-aprendizaje en entornos virtuales como un proceso de innovación pedagógica basado en la creación de las condiciones para desarrollar la capacidad de aprender y adaptarse tanto de las organizaciones como de los individuos”. (Salinas, 2005)

Ikaslea izanik ikasketa prozesuaren zentro eta bideratzaile, ikasketa prozesua auto-ikasketa bihurtuko da. Landa eskolan eta IKT-en bidez hezkuntza curriculumak eskatzen dituen edukiak barneratzeko, ikaslearen auto-ikaskuntza bultzatzen da. Hau da, irakaslea ikasketa prozesuaren gidaria izango da, baina ikaslea teknologia berri hauek erabiltzean bere ikaskuntza pertsonala osatzen joango da. Auto-ikasketaren bitartez ikasleak ezagutzak, gaitasunak, balio pertsonalak eta jarrerak garatzen ditu bere kabuz, ikasketa edo esperientzian oinarriturik.

“El auto-aprendizaje y la auto-formación del estudiante (...) fomenta la autonomía cognoscitiva, se enseña y se aprende a partir de problemas que tienen significado para los estudiantes, se utiliza el error como una oportunidad más para aprender y no para castigar, y se le otorga un valor importante a la auto-evaluación y a la evaluación formativa, cualitativa e individualizada”. (Dueñas, 2001:189)

Ikasleak forma autonomoan jarduteko proposamen eta baliabide eskaintza zabal eta motibagarria izan behar du eta eskolak gero eta prestatuago daude horretarako (2. eranskina).

Modu honetan, ikasketa global eta osotua eskaintzen da herri eskoletan, hirietako eskolek eskaini dezaketenaren modukoa. Gainera, esku-hartzea pertsonalizatuagoa denez baliabide hauen erabilera eta trataera zuzena, egokia eta aberasgarria dela ziurtatzen da.

2. Metodologia

2.1. Helburuak

IKT-en erabilera landa-eskolan eta honen eragin positiboa eta erabilgarritasuna aztertzea da helburu nagusia, hala ere helburu zehatz hauek ere landuko dira:

1. Landa eskoletan kalitatezko hezkuntza eskaintza baloratzea.
2. Eskolan ematen diren esperientzia teknologikoak ezagutu eta baloratzea.
3. Eskolan irakasleek teknologia berriak nola erabiltzen duten jakitearren, beraien pertzepzio eta balorazioak aztertzea.
4. Irakasleek IKT-ez egiten duten erabilera aztertzea.

2.2. Lanerako hipotesiak

1. Ikaslearentzat landa eskolan ematen den hezkuntza kalitatea, efikazia eta aberastasuna ikas-irakas prozesua garatzen laguntzen du.
2. Ikas-irakas prozesuan teknologia berrien erabilpenak ikaslearen motibazioa eta interesa sustatzen laguntzen du.
3. Irakaskuntza prozesuan irakasleen IKT-en inguruko jarrera aktibo eta baikorrak ikaskuntza esanguratsua bilakatzen du eta, gainera, ikasleen hezkuntza beharrak asetzen ditu.
4. IKT-en erabilerak ikaslearen maila kognitiboaren garapenari laguntzen dio.


2.3. Lagina

Ikerketa hau burutzeko metodologia jakin bat erabili da, pixkanaka, nire helburuak erdiestera eraman nauena. Aurretik zehaztutako helburuetatik abiatuz, eta lanerako hipotesiak kontuan hartuz, ikerketaren lagina azaltzen da.

Nafarroako Saldiseko herrian dagoen Otsonta eskolan ibili naiz eta bertako eguneroko irakasle eta ikasleen antolakuntza teknologia berriekin ikusteko aukera izan dut. Eskolako irakasle eta zuzendari bakarrarekin egun batzuk eman nituen aurkeztutako ikerketarako ildo nagusiak zehazten eta ezagutzen. Horretarako irakasleen eta ikasleen teknologia berriaren erabilera aztertu eta ezagutzeko aukera

eman dit. Teknologia berriaren presentzia eta erabilera aztertzeko hainbat eskolek hartu dute parte ikerketan. Ikuspuntu globala izateko Nafarroako zonalde desberdineko eskolak hartu dira eredu (Malerreka, Erronkari, Zaraitzu eta Baztan) eta bakoitzetik 2 irakasle zonalde bakoitzeko eskolekin kontaktuan jarrita, egoera bere osotasunean aztertu ahal izan da. Hurrengo grafikoan parte hartu duten irakasleen datu orokorrak zehazten dira. Horretarako Excel programa informatikoa erabili da.

Ondoren, eskola bakoitzeko irakasleen datu zehatzak zehazten dira.



1. grafikoa. Eskola bakoitzeko parte hartu duten irakasle kopurua.

Otsonta eskola	Irakasle 1	Irakasle 2
▪ Adina	40-50 artekoa	23-30 artekoa
▪ Lan esperientzia hezkuntzan	16 urte	5 urte
▪ Lan esperientzia eskolan	2 urte	Urte bat
▪ Ikasle kopurua	5	5

1.taula. Otsonta(Malerreka) eskolako irakasleen datu zehatzak.

Otsagabia eskola	Irakasle 1	Irakasle 2
▪ Adina	30-40 artekoa	30-40 artekoa
▪ Lan esperientzia hezkuntzan	11 urte	8 urte
▪ Lan esperientzia eskolan	7 urte	4 urte
▪ Ikasle kopurua	28	28

2.taula. Otsagabia (Zaraitzu) eskolako irakasleen datu zehatzak.

J. Gaiarre eskola	Irakasle 1	Irakasle 2
▪ Adina	23-30 artekoa	23-30 urtekoa
▪ Lan esperientzia hezkuntzan	5 urte	4 urte
▪ Lan esperientzia eskolan	2 urte	urte bat
▪ Ikasle kopurua	8	8

3.taula. Julian Gaiarre (Erronkari) eskolako irakasleen datu zehatzak.

IRURITako eskola	Irakasle 1	Irakasle 2
▪ Adina	23-30 artekoa	30-40
▪ Lan esperientzia hezkuntzan	5 urte	9 urte
▪ Lan esperientzia eskolan	2 urte	5 urte
▪ Ikasle kopurua	80	80

4.taula. Iruritako (Baztan) eskolako irakasleen datu zehatzak.

2.4. Datuak biltzeko eta aztertzeko tresnak

Landa eskoletan teknologia berriaren erabilpena neurtzeko, aztertzeko eta informazio baliagarria eskuratzeko eremu kuantitatiboari ekin zitzaion. Horretarako galdetegi itxia erabili da (2. Eranskina). Galdetegiak 15 item ditu eta parte hartzaileek iritzi mailaren arabera 1tik 5era erantzun egokiena adierazi dute. Tresna honen bitartez, irakasleek zer den gehien baloratzen dutena jakin da.

Bestalde, irakasleek eskola hauen antolakuntza eta teknologia berriarekiko duten jarrera eta esperientzia pertsonalak ezagutzeko asmoz, galdetegi ireki bat prestatu da (3. Eranskina). Honetan, galdera mota desberdinak agertzen dira eta hiru multzo desberdinetan banatzen dira: eskolako ezaugarriak eta ikasleak taldekatzeko erak, teknologia berriaren erabilera eta ekarpenak, eta ikasleen parte hartzea hain zuzen ere. Galderak irekiak direnez, irakasle bakoitzaren ikuspuntua eta teknologia berriekiko iritzia ezagutu da. Lortutako informazioa lanaren ondorioak aberasteko baliagarria izan da.

3. Lanaren garapena

Hasteko, landa eskolari buruzko informazio baliagarria eskuratzeko orrazketa bibliografiko zehatz bat egin da. Interneteko hainbat web orrialdetan, ikertutako gaiari buruzko artikulua desberdinak erabili dira marko teoriko-kontzeptuala osatzeko. Honetan autore desberdinen iritziak ezagutu dira eta lanaren gorputz teorikoa aberasteko oso baliagarriak izan dira.

Gradu Amaierako Lan honen izaera ikerketa eta esku-hartzekoa da. Alde batetik, irakasle desberdinen iritziak eta usteak ezagutzeko galdetegi itxi batzuk zabaldu baitira eta bestetik, galdetegi ireki bat erabili delako informazioa gai honen inguruan osatzeko. GAL honen helburu nagusia, landa eskoletan teknologia berriaren erabilerak ikasleen ikaskuntza prozesua aberasten eta errazten duela argudiatzea da. Eskola guztietako irakasleekin kontaktuan jarri eta gero galdetegiak zabaldu zaizkie eta haiek kide gehiagori erraztu dizkiote. Irakasle batekin (Otsonta eskolako irakaslearekin) aurrez aurre egin zen elkarrizketa, eta gainontzeko irakasleek inkestak betetzeko prozesua IKT-en bidez egin da, hain zuzen ere, posta elektronikoa erabiliz.


Hurrengo pausoa, lortutako emaitzak grafiko desberdinetan islatzea izan da Microsoft Office Excel programaren bitartez. Horrela teknologia berriaren erabileraren inguruan ikus daitezke landa eskolen arteko desberdintasunak zeintzuk diren. Hortaz, beste grafiko batzuetan galdetegia osatzen dituzten item desberdinetan antolatuta irakasle desberdinen iritzia islatzen da.

Hau dena landu ondoren lanaren atal garrantzitsuena azaldu da, hau da, ikerketaren ondorioak garatzea. Marko teorikoan autore desberdinen iritziak eta galdetegien bidez lortutako emaitzak baliagarriak izan dira ondorio nagusiak zehazteko eta hasieran planteatutako hipotesiak egiaztatzeko. Horrela, landa eskoletan egiten den IKT-en erabilerak duen eragin positiboa eta erabilgarritasuna berretsita geratzen da.

4. Emaitzak eta ondorioak


4.1. Emaitzak

Atal honetan irakasleei egindako galdetegi itxien emaitzak irudikatzen dira. Datuak batez bestekoa eginez lortu dira. Bataz bestekoak aterata landa eskolaren irakasleen aldetik pertzepzioa orokorra hauxe da (0tik 5erako eskalan):




2.grafikoa. Landa eskolako irakasleen pertzepzio orokorra.

Grafiko honen bitartez, landa eskolako irakasleen pertzepzio orokorra irudikatzen da (bataz bestekoa). Ikerketan parte hartu duten irakasle guztien iritzia grafiko honetan adierazten dira. Emaitzei erreparatzen badiegu argi ikusten da IKTak antolamendurako tresna oso baliogarriak direla. Item honek grafikoko emaitza altuena lortu du. Aipatzekoa da, item baxuena irakasleen formakuntzari erreferentzia egiten diona dela, 3,2 puntu lortuz; hau da, 10 oinarriko eskala batean 6,4ko balioa izango litzatekeena.




3. grafikoa. Eskola prestatuta dago teknologia berriekin lan egiteko.


Grafiko honek **eskola prestatuta dago teknologia berriekin lan egiteko** itemari erreferentzia egiten dio. Bataz bestekoaren balioa 4tik gorakoa izanda, prestakuntza erreala dela eta horren alde lan egiten dela ikusten da.




4. grafikoa. Irakasleen formakuntza teknologia berriekiko.



5. grafikoa. Baliabideek beharrei erantzuten diete.



6. grafikoa. Programak, softwareak... eguneratuta daude.




7. grafikoa. Ikasleen erabilera zuzena eta arduratsua.

Aztertu izan denean **irakasleen formakuntza** teknologia berrien inguruan, datuek argi adierazten dute hobetu behar den faktore bat dela. Otsagabia eskolako datuek irakasleen formakuntza ona dela adierazten duten arren, gainontzeko kalifikazioak ikusita gehiago landu behar den alderdia dela adierazten dute.


Baliabideek eskolako beharrei erantzuten diete grafiko honetan irudikatzen da. Orokorrean kalifikazio onak lortzen dira, baina bi eskoletan teknologia berrien erabilpena garatuago dago besteetan baino. Dena den, garapen hori eskola guztietara heltzen ari da, sare moduan funtzionatuz jakintza partekatzen dutelako.

Galdetu denean **programak, softwareak eta horrelakoak ea eguneratuta** dauden edo ez, kalifikazioak oso positiboak izan dira. Orokorrean eskoletan erabiltzen diren informatikako programak eguneratuta eta erabilera egokia emateko prestatuta daude.


Ikasleen erabilera zuzena eta arduratsua egiten den itemaz galdetzean, kalifikazio altuak lortzen dira. Aipatzekoa da, eskola batean konkretuki emaitza bikaina lortu dela, 5 puntuko kalifikazioa emanez. Batez bestekoak adierazten duen bezala, beste eskolak ere ez dira oso atzean geratzen.




8. grafikoa. Edozein arloko edukiak lantzeko.



9. grafikoa. Gelaren antolamendurako tresna positiboa.



10. grafikoa. Ikasleen motibazioa eta interesa sustapena.




11. grafikoa. Pentsamendu abstraktu eta logikoa garapena.

Edozein arloko edukiak lantzeko baliabideak, hau da, teknologia berriak edozein irakasgai erabiltzeko baliagarriak diren aztertu izan denean, emaitzak oso positiboak izan dira, eta ia adostasun orokor batera iritsi da. Irakasleek edozein irakasgai eta edozein eduki lantzeko IKT-ak erabiltzen dituztela argi adierazten da.


Teknologia berriak **gelaren antolamendurako tresna positiboa** direla aztertu denean, kalifikazio oso altuak lortu dira. Irakasleek IKT-en erabilerak ikas-irakas prozesua garatzen laguntzen duela adieraztearen alde erakusten dira. Gainera, edozein momentutan eta edozein irakasgai erabiltzeko aproposak direla defendatzen dute.

Grafiko honetan **ikasleen motibazioa eta interesa sustatzen duen** itemaz aztertzean, ikasleen guztien iritziak ia bat datoz. Kalifikazioek adierazten duten moduan, ikasleen motibazioak eta interesak gora egiten du teknologia berriak erabiltzen direnean mota desberdinetako edukiak eta jarduerak gauzatzean. Irakasleak motibatuago sentitzen dira IKT-ek ikasleengan duten eragina ikusita.


Beste ekintza batzuk garatzeko ere, **ikasleen pentsamendu abstraktu eta logikoa garatzeko**, teknologia berriak lagungarriak dira. Erreminta digital berriek eskaintzen dituzten aukerak ikasleen pentsamendu abstraktua eta logikoa garatzeko anitzak dira. Aukera hauek ikasleengan duten eragina kalifikazioetan islatzen da emaitza positiboak lortuz.




12. grafikoa. Sormena ahalbideratzen du.



13. grafikoa. Arriskuko guneen saihestena.



14. grafikoa. Ikasleen maila kognitiboa.




15. grafikoa. Autonomiaz lan egiteko aukera.

IKTek ematen dituzten aukera zabalak direla eta, ikasleek lanak burutzerako orduan haien interes eta gustuekin lotu ditzakete; kreatibotasuna bultzatuz eta lan bakoitza pertsonalizatuz. Horrela, **sormena ahalbideratzen du** itema ondo baloraturik ageri da, nahiz eta oraindik gehiago landu daitekeen.


Galdetu denean **arriskuko guneak saihesten dituzten**, orokorrean erantzuna positiboa izan da. Haur hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleen artean desberdintasunak aurki daitezke, izan ere, adin txikietako ikasleekin hobeto kudeatzen da interneteko edo ordenagailuaren erabilpen egokia. Hala ere, erabilpen desegokiak zeintzuk diren ondo antzematen dute eta orokorrean erabilera zuzena ematen zaie IKTei.

Ikasleen maila kognitiboa garatzen laguntzen duen itema aztertzean, argi ikus daiteke oso onuragarria dela teknologia berriak erabiltzea. Haur hezkuntzako ikasleari IKT-en erabilerak asko laguntzen dio maila kognitiboa garatzen, mota desberdinetako jarduerak egin ditzakeelako.

Aztertu den beste aspektu bat, **teknologia berriek ikaslea autonomiaz lan egiteko** bultzatzen duen edo ez izan da. Lan egiteko jarduera desberdinetan teknologia berriekin aritzeak ikasleen autonomia eta auto-ikaskuntza bultzatzen du, onura garrantzitsuak emanez.



16. grafikoa. Jardueren arteko koordinazioa.



17. grafikoa. Irakasleen erabilera zuzena eta arduratsua.

Oso ondo baloraturik agertu den aspektu bat **jardueren arteko koordinazioa** izan da. Irakasleen iritziak adierazten duen grafikoak kalifikazio oso onak biltzen ditu. Irakasleek teknologia berriak erabiliz jarduera desberdinen arteko loturak egiten dituzte, jardueren arteko koordinazioa lortuz.

Espero zitekeen moduan irakasleek IKTez egiten duten erabilera zuzena eta arduratsua da. Ikasleei jokabide hau erakusteko modurik zuzen eta aproposena jarrera hauek irakasleari ere ikustea da.

4.2. Ondorioak

Lortutako emaitza guztiak tratatu ondoren hurrengo ondorio nagusiak azaltzen dira:

- **Ikaslearentzat landa eskolan ematen den hezkuntza kalitatea, efikazia eta aberastasuna ikas-irakas prozesua garatzen laguntzen du.**

Gizartean eskola hauek eskola urbanoekin konparatzeko joera badago ere, bere hezkuntza sistemaren kalitatea ez da zalantzan jartzen. Izan ere, landa-eskolak bere benetako izaera, efikazia eta aberastasuna balora dadin abantaila eta ezaugarri jakin batzuk ditu. Adin desberdinetako ikasleak batera egoteak heterogeneotasun handia ematen dio gelari, maila kognitibo desberdinak uztatzen direlako eta bakoitzaren esperientziak besteengan eragina duelako. Ikasleak gela berean egon arren, eta batzuetan kontzeptu berdinak landu arren, moldaketak egiten dira adinaren arabera. Antolakuntzari dagokionez, hezkuntza sistema honetan, ikasle bakoitzak irakasgai desberdinetako zereginak zeintzuk diren ondo ezagutzen du, aurretik ikasturte osorako plangintza diseinatuta baitago. Modu honetan, irakaslea ikasketaren gidari bihurtzen da, auto-ikaskuntza bultzatuz. Horrek asko laguntzen du ikaslearen autonomia maila garatzen, bere kabuz aurrera eramaten baitu eginbeharrak, beti ere irakaslearen zaintzapean. Horretarako, curriculumak ere planteamendu malgua eskatzen du ikaslearen beharrei erantzuna eman ahal izateko: denboraren antolaketa malguagoa, mugarik gabeko lan egiteko espazio desberdinak... Beraz, lantzen diren unitate didaktikoak globalizatzaileak dira, gelako ikasle guztiei egokituta daudelako. Gainera, ikasle gutxi direnez, ikasle bakoitzaren jarraipena sakonagoa eta pertsonalizatua egiten da, hobetu behar diren faktoreak edo alderdiak zeintzuk diren baloratuz. Horrekin batera, ikaslearen garapena indartzeko gaitasuna ematen da. Bestalde, eskola hauetan ematen den giroa oso lasaia, atsegina eta familiara da, kideko partaide guztiak eskolako zereginetan inplikatzeko baitira: ikasleak, irakasleak, familiak eta herria. Laburbilduz, eskola hauen efikazia eta aberasgarritasuna konprobatu dira, ikusiz eskaintzen diren aukerak ez direla eskasak, baizik eta kalitatezko hezkuntza eredu dela, eta hezkuntza tradizionalaren parekoa.

- **Ikas-irakas prozesuan teknologia berrien erabilpenak ikaslearen motibazioa eta interesa sustatzen laguntzen du.**

Nafarroako landa-eskolak ez dira atzean geratu eta baliabide teknologikoekin ondo hornituta daude: ordenagailuak, proiektoreak, arbela digitalak, Internet... Elementu hauek gelaren barruan daude eta ikasle guztiek erabiltzen dituzte. Orokorrean egunero eta maiz erabiltzen dituzte arlo desberdinetako jarduerak gauzatzeko: kantak entzuteko, informazioa bilatzeko, ariketa interaktiboak egiteko edo bideoak ikusteko. Kasu batzuetan etxerakolanak moodle plataformaren bitartez bidaltzen dituzte eta askotan eskolako blogan hainbat lan argitaratzen dituzte, gainerako ikasleek ikusi ahal izateko, interakzioa sortuz. Egoera horrela izanda, **dauden baliabideek eskolako beharrei erantzuten diete**. Batz bestekoa kalifikazioa 5tik 3,75 izanda, erakusten da irakasleak konforme daudela, hala ere, aipatzen dute hezkuntzaren beharrak ez direla IKT-en bidez soilik konpontzen, hauek objektu lagungarriak direla **ikaslearen motibazioa eta interesa pizteko**. Orokorrean, teknologiaren bitartez, ikasleak motibatuago sentitzen dira, eta beraien parte hartzea esanguratsuago suertatzen da. Kontuan hartu behar dugu IKT-ak eskolatik kanpo ere ikaslearen bizitzan presente daudela, eta ezagunak eta interesgarriak suertatzen zaizkiola. Ez dugu ahaztu behar hezkuntza sistemako faktore garrantzitsuenetariko bat motibazioa dela, eta datuak aztertu ondoren, IKT-en bidez, ikasleen motibazioa igotzen dela dirudi. Gainera, ikasleak **aktiboki erakusten dira ordenagailuaren** aurrean, etengabeko interakzioan daudelako. Ikaslearen parte hartzeak bere ekimena garatzen laguntzen du **lan autonomoa eta metodikoa** bultzatuz. Horrez gain, bat-bateko atzera-elikaduraren erantzunak aukera ematen dio ikasleari akatsa zein den zuzenean antzemateko, informatikako programak horretarako bideratuta baitaude. Horrez gain, aipatzekoa da IKT-en erabilerak faktore hauek hartzen dituela bere baitan: komunikazio zuzenagoa ikasle eta irakasleen artean (foroak, blogak, posta elektronikoen bidez); irakaskuntza kooperatiboa (materiala interaktiboak, foroak...) talde lana errazten dute; disziplinartekotasun maila altuagoa lortzen da (informazio ezparru zabal eta anitzak bildu daitezkeelako). Teknologia berriek eskaintzen dituzten erreminta berrien artean, **ikasleen sormena eta adierazkortasuna** (testu prozesadoreak, editore grafikoak...) lantzeko aukera dago, programa eta dinamika askoren bitartez idatzizko adierazmena, eta irudizko eta ikusizko komunikazioa landu

baitaiteke. Gainera, informazioa eskuratzeko hainbat iturri desberdinetara jo daiteke edota ikaslearen autobaluzioa egiteko dauden web interaktiboak ere eskura daude.

Ikasleek elementu teknologiko berri hauek erabiltzean, **erabilera zuzena eta arduratsua egiten da**, eskolako atal garrantzitsu bat bezala ikusten dutelako. Ikaskuntza IKT-en bitartez, deigarriagoa iruditzen zaie, hortaz, baliabide hauek ondo zaintzen badakite.

- **Irakaskuntza prozesuan irakasleen IKT-en inguruko jarrera aktibo eta baikorrak ikaskuntza esanguratsua bilakatzen du eta, gainera, ikasleen hezkuntza beharrak asetzen ditu.**

Irakaslea ikas-irakas prozesuan ikaslearen gidaria denez, bere eskuan dauden baliabide eta aukera guztiak erabili behar ditu ikaskuntza esanguratsua izan dadin. Aztertutako datuen analisian, hobetu behar den faktore garrantzitsu bat **irakaslearen formakuntza baliabide teknologikoak kudeatzeko da**. Teknologia berriak oso hedapen handia, azkarra eta sendoa izan dute azken urteotan, eta egun batetik bestera mundu teknologiko-digitalak ematen dituen aukerak hezkuntzarako anitzak dira. Errealitate hori eskolan islatu behar da, eskola eta gizartea eskutik joan behar diren bi alderdi direlako. Hori dela eta, demostratu da, gaur egungo landa-eskoletan baliabide teknologiko asko daudela, hala ere, irakaslearen formakuntza arlo horretan ez da hain positiboa. Izan ere, kontuan hartu behar da irakaslearen adinak asko baldintzatzen duela IKT- erabilera, irakasle gazteen artean teknologia berriekiko jaso duten formakuntza aberatsagoa delako irakasle helduena baino. Gizartearen eraginez, irakasle gazteek gaitasun digitala berez eskuratuta dute, irakasle helduek, ordea, ikasi behar duten alderdi baten aurrean gaude. Aipatzekoa da, irakasleek **edozein edukiak** eta **edozein irakasgaiak** lantzeko erabiltzen dituztela baliabideok; esate baterako, arbela digitala eta honek eskaintzen dituen ariketa interaktiboak. Gelan teknologia berriak izateak askatasun handia ematen dio irakasleari ikasle guztiak kudeatzeko. Adibide bat jartzearren: ikasle bat testu bat ordenagailura garbira pasatzen ari den bitartean, besteek irakasleen azalpenak entzun ditzakete. Orokorrean, teknologia berriak gelaren **antolamendurako tresna**

oso positiboak dira, aukera anitzak ematen dituztelako lan egiteko, errefortzuko ariketak egiteko, mota desberdineko ariketak sortzeko. Gainera, **beste motatako jarduerekin koordina daitezke**, irakasgai desberdinak konektatuz eta loturak eginez. Irakasleari errazago eta motibagarriago egiten zaio IKT-en bidez irakastea, bat-bateko informazioa lortzen delako eta edozein momentutan eta edozein tokitan erabili daitekeelako, hau da, materiala digitalizatuta dagoenez urtetik urtera hobetzen eta osatzen joan daitekeelako. Gainera, irakasleek aipatzen dute, lantzen diren edukiak modu erakargarriago batean ikasten direla, eta horrek motibazioa, arreta eta interesa pizten duela ikasleengan.

- **Hezkuntzan IKT-en erabilerak ikaslearen maila kognitiboaren garapenari laguntzen dio.**

Landa-eskoletan adin desberdinetako ikasleak elkarrekin egoten dira gelan eta horregatik **maila kognitibo desberdinak** eta iritzi desberdinak etengabe uztatzen dira. IKT-ak gure gizartean ezarrita daude, eta errealitate hori eskolan ere islatzen da. Teknologia berriak irakasteko eta ikasteko metodologia berriak sortu dira, hezkuntza kalitatea hobetuz eta aberastuz. Adin txikietako ikasleek ez dute IKT-ekin lehenengo kontaktua izaten eskolan hasten direnean, baizik eta, jaiotzen direnetik teknologiaz inguratuta daude. Gauza normaltzat hartzen da, eta bere erabilerak ez du behar bestelako azalpenik. Beraz, esan dezakegu konpetenzia teknologiko-digitala praktikaren ondorioz garatzen joaten dela. IKT-ek eskaintzen dituzten aukeren artean, hezkuntza-jokoak daude, hauek aukera ematen diote ikasleari jolasen bidez ikasteko, eta modu ez zuzenean beste gaitasun batzuk garantzen joateko. Landa eskolako Haur Hezkuntzako ikasleek esate baterako, 3 urterekin irakurtzen eta idazten ikasten dute, adin desberdinetako beste ikasleekin harremanetan daudelako eta erabiltzen dituzten material eta baliabideak denek partekatzen dituztelako. Honekin batera, **pentsamendu abstraktu garatzen** eta **sormeneko lanak ekoizten ahalbideratzen eta laguntzen** dute IKTek.

Hau guztia ikusi eta gero esan beharra dago IKTak modu anitzean erabiltzeko eta planteamendu hau errealitatera eramateko testuinguru aproposena landa eskolak eskaintzen duena dela. Baliabide teknologikoen txertatzeak aldaketa bat suposatu du ikas-komunitate osoan eta irakasleen aldetiko formakuntza eta inplikazioak berebiziko garrantzia izan du honetan. Irakasleriarentzat erronka eta aldaketa handia suposatu duen arren, emaitza oso positiboak jaso izan dituzte. Ikasleriaren aldetik, ikasteko era erraz eta hurbila bihurtu da, sozializatu eta komunikatzeko tresna bezala ere erabiltzen dutena. Eta, azkenik, familientzat mundu berri baten ezagutza ekarri du, zeinen bitartez eskolara beste era batean hurbildu daitezkeen eta seme-alamen jardutea hurbilagotik ezagutu dezaketen.

5. Erreferentzia bibliografikoak

Aguirre, L. (2008). Altxor bat dugu esku artean. *Jakingarriak*, Vol 64, 27-31)

Aznar Diaz, I. (2005). El impacto de las tics en la sociedad del milenio: Nuevas exigencias de los sistemas educativos ante la “alfabetización tecnológica”. *Etica@net*, Vol 4, 178-187. 2014-02-10an hartua hemendik: <http://www.ugr.es/~sevimeco/revistaeticanet/Numero4/Articulos/Formateados/ELIMPACTO.pdf>

Ballanera Iturburu, X. (2008). Euskal Herriko herri eskolak. *Jakingarriak*, Vol 64, 20-23.

Bernal Aguado, J.L (2009). Luces y sombras en la escuela rural. Departamento de Ciencias de la Educación. *Universidad de Zaragoza*. 2014-04-02an hartua hemendik:http://didac.unizar.es/ilbernal/articulos_propios/pdf/01_escruralls.pdf

Castaño, C. (2003). Aprendizaje en movilidad. En J.Barroso y J.Cabrero (Coords). Nuevos escenarios digitales. Las tecnologías de la información y la comunicación aplicadas a la formación y desarrollo curricular. Madrid. Pirámide. Pp.293-306.

Cebrián, M. (2003) (coord.). enseñanza virtual para la innovación universitaria. Madrid: Narcea.

De Benito Crosetti, B.(2008). Cambios metodologicos. Estrategias metodologicas para el aprendizaje en red. Salinas Ibañez, J. (Ed.) *Innovación educativa y uso de las TIC*.2014-02-12an hartua, hemendik:<http://dspace.unia.es/bitstream/handle/10334/2524/innovacioneduc2008.pdf?sequence=1>

Dueñas Rivera, V. (2001). El aprendizaje basado en problemas como enfoque pedagógico en la educación en salud. *Corporación Editorial médica del Valle*, Vol 32, 4. 2014-05-2014an hemendik hartua: http://www.imbiomed.com.mx/1/1/articulos.php?method=showDetail&id_articulo=20755&id_seccion=1612&id_ejemplar=2134&id_revista=108

Gallego, C.(2008).El papel de las familias en el proceso didáctico. *AULA de infantil. Ámbito 0-6*, Vol 41, 31 .2013-12-20an hemendik hartua:<http://www.aulainfantil.grao.com/revistas/aula-infantil/041-geometria/el-papel-de-las-familias-en-el-proceso-didactico>

Jimenez Fernandez, J. (2009). La escuela rural. *Innovación y experiencias educativas*, Vol 23, 1-10.

- Lopez de la Serna, A. (2014). *Eskola antolakuntza Irakasgaia. Didaktika eta Eskola Antolakuntza Saila. Bizkaiko Atala. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola. Upv/Ehu. 2013-2014 Ikasturtea.*
- Martin-Laborda, R. (2005). *Las nuevas tecnologías en la educación. Cuadernos/Sociedad de la información, Vol 5, 4-34.* 2014-02-11an hemendik hartua:
<http://estudiantes.iems.edu.mx/cired/docs/ae/pp/fl/aepplp11pdf01.pdf>
- Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación. BOE BOE 106, del 4 de mayo de 2006.
<http://www.boe.es/buscar/pdf/2006/BOE-A-2006-7899-consolidado.pdf>
- Martin Gómez, N. (2004). *La escuela rural y el debate educativo del Mec. Asturias: Colegio Rural Agrupado "Juan Pérez Avello".* 2014-01-18an hartuta
[http://www.stes.es/areas/escuela_rural/Ponencia Escuela rural en las leyes educativas.pdf](http://www.stes.es/areas/escuela_rural/Ponencia_Escuela_rural_en_las_leyes_educativas.pdf)
- Martín Gómez, N.(2006). *La escuela en el medio rural. Guías para padres y madres, Vol 21, 5-53.* 2014-01-20an hartua, hemendik:
[http://www.stecyl.es/LOCE/041116 debate educativo escuela rural.pdf](http://www.stecyl.es/LOCE/041116_debate_educativo_escuela_rural.pdf)
- Nafarroako Gobernua. Hezkuntza Departamentua. (2007) *ANEXO I del Decreto Foral 24/2007, de 19 de marzo, por el que se establece el currículo de las enseñanzas de Educación Primaria en la Comunidad Foral de Navarra.* Iruña: Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Fondoa 2014-02-23an hartua, hemendik:
www.cfnavarra.es/publicaciones06.educacion.navarra.es/publicaciones/pdf/curriprimaria1eusk.pdf
- Salinas Ibañez, J. (2005). *Cambios metodológicos en las TIC. Estrategias didácticas y entornos virtuales de enseñanza-aprendizaje.* Palma de Mallorca: UIB.
- Soler Marta, J. (2001). *Aprender a ser maestro en la escuela rural. Reflexiones sobre la formación inicial y permanente del profesorado de escuela rural.* Actas primer congreso Escuela Rural de Aragón, 75-89. 2014-01-30ean hartua, hemendik:
http://redaberta.usc.es/uvi/public_html/images/pdf1998/soler0.pdf

1. ERANSKINA:

Eskolako baliabidea pedagogiko berriak

Denbora behar da ikastetxeetan eta baita ere eskola unitarioetan IKT-en erabilera aldatzen joateko. Hasteko ikastetxetik irakasleen dimentsio teknologikoa ezagutzea eta hori sustatzeko praktikak ezagutzea beharrezkoa dute. Eskolan IKT-ak sustatzeko, errazteko eta bermatzeko hurrengo orientabide hauek ematen dira:

1. Internet adierazpen eta komunikazio bidea

Internetek eskaintzen dituen aukeren artean komunikatzeko erraztasuna izan daiteke aukerarik garrantzitsuena. Komunikazioa pertsonen, enpresen edota instituzioen artean ematen da. Hala ere, hezkuntza eremuan, irakasleek, ikasleek eta familiek informazioa eskatzen dute, iritziak trukatzeko eta esperientziak konpartitzen dituzte. Modu honetaz irakaslea erraz jarri daiteke harremanetan beste irakasle batekin, ikasle baten jarraipena egin edo familia jakin batekin bilera bat izan.

Internetek bide desberdinak eskaintzen ditu komunikazioa gerta dadin. Gehien erabiltzen den tresna posta elektronikoa da, bere erabilera oso erraza delako eta irakasleen eta ikasleen artean komunikazio azkarra eta malgua bermatzen duelako. Foroek eta chat-ek aukera ematen dute interes berak dituen pertsona batekin harremanetan jartzeko. Gainera, chat-ak bat bateko komunikazioa eskaintzen dute aldi berean pertsona batekin edo talde batekin aritu zaitezkeelarik. Hala ere, tresna hauek ezagutzak transmititzeko baliogarriak dira: dokumentuak, artxiboak, argazkiak eta soinuak atxikituz bidaltzeko aukera ematen dituzte eta.

2. Internet ezagutza eta jakintza iturri bezala

Irakasleek eskolak prestatzeko eta ikasleek lanak burutzeko informazio ugari aurki dezakete nabigatzaile desberdinetan bilatuz. Internetek aukera anitz eskaintzen du informazioa topatzeko, ikuspuntu eta iritzi desberdinetan oinarriturik. Aldizkari digitalak, argitarapen elektronikoak, datu baseak eta liburutegi birtualak sarean dauzkagu erabili ahal izateko moduan, hauek irakasleen lana errazten dute eta ikerkuntza desberdinen eta proiektuen emaitzaz jakinarazteko informazio zuzena ematen dute.

3. Internet euskarri didaktiko bezala ikaskuntzarako

Irakasleak Internet erabili dezake gelan irakasgai bat biribiltzeko, irakasteko edo errefortzua emateko zailtasunak dituen ikasle bati. Hainbat abilezia teknikak aukera emango dizkio irakasleari material desberdinak sortzeko. Sortutako materialak eta testu liburu tradizionalen agertzen dena uztartzeko baliogarria izango da.

Material berriaren sorkuntza errazteko hainbat programa daude, musikako erreproduktoreak, bideoko editoreak, web orrialdeak, erremintak... Gainera, gero eta aplikazio gehiago sortzen ari dira hezkuntzan erabil daitezzen.

Irakasleak edo ikasleak web orrialde bat sor dezake eta bertan materialak konpartitu. Web-Questa-ak beste aukera bat izan daitezke, eta gero eta indar gehiago hartzen ari baitira hezkuntza sisteman. Programa hauen helburua ikerkuntza bat planteatzea da, ikasleek informazioa bilatu behar dute Interneten eta gelako ikasle guztiek parte hartzen dute aktiboki. Berni Dodge San Diegoko (AEB) Unibertsitateko irakaslea metodo hau erabiltzen hasi zen ikaskuntzarako 1995ean. Web-Questa estrategia egoki bat kontsideratzen da Internetez bidezko hezkuntza onuragarria izateko. Erreminta hau gero eta gehiago erabiltzen da hezkuntzako atarietan. Metodologia berri honen menpe CNICE (Centro Nacional de Información y Comunicación Educativa) Hezkuntzako Ministerioa, aurkitzen da.

Azkenik, aipatu beharra dago arbela digitalak ematen dituen aukerak. Posibilitate ugari baliatzen dira ikasleak: interneteko laguntzaz, irakasleen azalpenaz, eztabaidaz, debategaz eta ikasleek egiten dituzten lanez. Arbela digitala ordenagailu batez eta erreproduktore handi batez osatuta dago. Biak interneteko sarean konektatuta daude eta pantaila handi batean ikusteko aukera izaten dute ikasleek. Gainera, arbela digitalak "taula interaktibo" bat dauka eta bertan idazteko posibilitatea dago.

4. Internet talde lanerako euskarri bezala

Internetek eskaintzen duen abantailarik nagusienetariko bat hezkuntzan talde lanean aritzeko aukera da. Sarean lan egitean geografiako mugak gainditzen dira eta denbora ez da oztopo bat. Sareen bidez ikasle talde batek edo irakasle talde batek lan bat burutu dezake eskolako ordutegitik kanpo.

Gero eta lankidetzako sare gehiago ari dira sortzen: intranetak, sare lokalak, sare internazionalak eta transnazionalak. Badira sare asko non irakasle batzuek lan egiten duten batera.

5. Internet ikastetxeko kudeaketarako eta administraziorako.

IKT-ek ez dizkiote abantailak ematen soilik irakasleei edo ikasleei, baizik eta gestio eta administrazioko lanak burutzen dituztenei ere asko errazten die eginkizuna. Edozein eskolak instala dezake programa bat eskolako funtzionamendua kudeatzeko: irakasleen kudeaketa (familien bilerak, ordutegiak, atsedenaldiko zaintzak...) eta ikasleen kudeaketa (familien datuak, akademikoak, medikuak...) eta pertsonal administratiboa.

2. ERANSKINA:

Eskola unitarioko irakasleei egindako inkestak

Janire Rekalde Villa naiz, Euskal Herriko Unibertsitateko ikaslea. Aurten laugarren maila nagoenez, GAL (Graduko Amaierako Lana) burutzen ari naiz. Nire ikerketak IKT-en bidez landa-eskoletan ikasleen ikasketa prozesua aberasten dela erakustean datza.

Galdetegi honetan 15 item agertzen dira. Markatu puntuazioa honen arabera:

1 ez nago ados; 2 ez nago guztiz ados; 3 erdixka ados nago; 4 ados nago; 5 guztiz ados nago

	1	2	3	4	5
1. Eskola prestatuta dago teknologia berriekin lan egiteko					
2. Irakasleak formakuntza egokia dauka baliabideak kudeatzeko					
3. Dauden baliabideek eskolako beharrei erantzuten diete					
4. Erabiltzen diren programak, softwareak, ... eguneratuta daude					
5. Ikaslearen erabilera zuzena eta arduratsua da					
6. Edozein arloko edukiak lantzeko baliabideak dira					
7. Gelaren antolamendurako tresna positiboa da					
8. Ikasleen motibazioa eta interesa sustatzen du					
9. Pentsamendu abstrakto eta logikoa garatzen laguntzen du					
10. Sormeneko lanak ekoiztea ahalbideratzen du					
11. Arriskuko guneak saihesten dituzte					
12. Ikasleen maila kognitiboa garatzen laguntzen du					
13. Autonomiaz lan egiteko aukera ematen du					
14. Beste motatako jarduerekin koordina daiteke					
15. Irakaslearen baliabide hauen erabilera zuzena eta arduratsua da.					

Eskerrik asko zure laguntzagatik

3. ERANSKINA:

Eskola unitarioko irakasleei egindako galdetegiak

Janire Rekalde Villa naiz, Euskal Herriko Unibertsitateko ikaslea. Aurten laugarren maila nagoenez, GAL (Graduko Amaierako Lana) burutzen ari naiz. Nire ikerketak IKT-en bidez eskola unitarioetan ikasleen ikasketa prozesua aberasten dela erakustean datza.

Inkesta honetan galdera desberdinak eskola eta IKT-en inguruan agertzen dira.

Eskola:	Ikasle kopurua:	Adina: 23-30 30-40 40-50 50tik aurrera
Lan esperientzia hezkuntzan:		Lan esperientzia zentro horretan:

1. Nolakoa da eskola?
2. Nola antolatzen dira ikasleak? Taldekatzea eta gela
3. Norekin ibiltzen zara elkarlanean? Norekin hartzen dituzu erabakiak?
4. Zer metodologiarekin aritzen zarete?
5. Harremanetan egoten zara beste irakasleren batekin?
6. Eskolen arteko elkarlana egiten da?
7. Zer ekarpen egiten dio irakasleari landa eskola batean aritzeak?
8. Zer baliabide teknologiko daukazue eta zeintzuk erabiltzen dituzue gelan?
9. Zertarako erabiltzen dituzue?
10. Zenbateko maiztasunarekin erabiltzen dituzue?
11. Irakasgai desberdinetan erabiltzen duzue ordenagailua?
12. IKTak erabiltzean ikaslek talde lana edo elkarlaguntza izaten dute?
13. Adin guztietako ikasleek baliabide berdinak erabiltzen dituzte? Zertarako?
14. Zer jarduera mota egiten dituzte hurrek ordenagailuan?
15. Ikasleek autonomikoki eta forma arduratsu erabiltzen dituzte baliabideak?
16. Uste duzu baliabide hauek erabiltzeak ikaslearen hezkuntza prozesuari laguntzen diola?
17. Zer lortzen duzu IKT-ak erabiltzean ikaskuntza prozesuan? (motibazioa, arreta, jolasgura, jakinmina, interesa...)
18. Ikasleek zelako jarrera dute baliabide hauen erabilera eta mantentzeari dagokionez?

19. IKT-ak erabiltzeko konpetentziak praktikaren ondorioz garatzen dituzte edo horretara bideratutako azalpenak eman behar zaizkie?
20. Zer aspektu positibo dauka irakaskuntza digitalen bidez ikasteak?
21. Zer aspektu positibo dauka irakaskuntza digitalen bidez irakasteak?
22. Nola izaten da haurraren parte hartzea baliabide horiek erabiltzean?
23. Zein lorpen eta zein muga ematen dira IKT-en inguruan?
24. Zure iritziz kalitatezko hezkuntza lor daiteke IKT-en bitartez?
25. Zerbait gehiago esan nahi duzu?

Eskerrik asko zure laguntzagatik

